



JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO

al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA

Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

2007ko azaroaren 21a, asteazkena

ZENBAKIA **137** NÚMERO

Miércoles, 21 de noviembre de 2007

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

7803

19/2007 Foru Araua, azaroaren 12koa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2007ko uztailaren 30eko Bigarren Erabakia berrestekoa.

Arabako Biltzar Nagusiak 2007ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

19/2007 Foru Araua, azaroaren 12koa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2007ko uztailaren 30eko Bigarren Erabakia berrestekoa.

Zioen azalpena

Maiatzaren 23ko Legearen bidez onetsitako indarreko Ekonomia Ituneko bigarren xedapen gehigarrian ezarri denez, Estatuak zergei buruz duen antolamendu juridikoan berrikuntzaren bat gertatzen bada eta berrikuntza horrek zergen itunari eragiten badio, edo araugintzarako eskumenen banaketa aldatzen bada eta aldaketak zeharkako zergapetzearen eremuari eragiten badio, edo zerga figura edo konturako ordainketa berriren bat sortzen bada, bi administrazioek, ados jarrita, antolamendu horretan izandako aldaketetara egokituko dute Ekonomia Ituna.

Beste alde batetik, Ekonomia Ituneko 62. artikuluan Batzorde Mistoari ezarritako eginkizunetako bat testuaren aldaketak erabakitzea da.

Arau esparru honekin bat etorritz, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, 2007ko uztailaren 30eko bilkuran, aho batez erabaki du 4, 14, 15, 19, 27, 29, 33 eta 34. artikulua eta lehenengo xedapen iragankorra aldatzea eta hiru xedapen iragankor gehitzea: zortzigarrena, bederatzigarrena eta hamargarrena. Aldaketa hauek Gorte Nagusietan izapidetu beharko dira Itunaren lege testuari txertatzeko. Gainera, Biltzar Nagusiek aldaketa hauek eragiten dien zergen arloko foru arauak egokitu beharko dituzte.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

7803

Norma Foral 19/2007, de 12 de noviembre, de ratificación del Acuerdo Segundo de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 30 de julio de 2007.

Las Juntas Generales de Álava, en su Sesión Plenaria celebrada el día 12 de noviembre de 2007, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma foral 19/2007, de 12 de noviembre, de ratificación del Acuerdo Segundo de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 30 de julio de 2007.

Exposición de motivos

La Disposición Adicional Segunda del vigente Concierto Económico, aprobado por Ley 12/2002, de 23 de mayo, prevé que en el caso de que se produjese una reforma en el ordenamiento jurídico tributario del Estado que afectase a la concertación de los tributos, se produjese una alteración en la distribución de las competencias normativas que afecte al ámbito de la imposición indirecta o se crearan nuevas figuras tributarias o pagos a cuenta, se procederá por ambas Administraciones, de común acuerdo y por el mismo procedimiento seguido para su aprobación, a la pertinente adaptación del Concierto Económico.

Por otra parte, el Concierto Económico en su artículo 62 atribuye a la Comisión Mixta del Concierto Económico, entre otras, la función de acordar las modificaciones de su texto legal.

De acuerdo con este marco normativo, la Comisión Mixta del Concierto Económico, en sesión de 30 de julio de 2007, ha convenido por unanimidad la modificación de los artículos 4, 14, 15, 19, 27, 29, 33, 34, Disposición Transitoria Primera y la adición de las Disposiciones Transitorias Octava, Novena y Décima. Estas modificaciones requieren su posterior tramitación en las Cortes Generales a efectos de su incorporación al texto legal del Concierto, así como la adaptación por parte de estas Juntas Generales de las diferentes Normas Forales de carácter tributario que resultan afectadas

Aldaketa gehienak itun berriek eragin dituzte; hona garrantzi-tsuenak: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegian erakunde taldeen araubidea sartzea; Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Bereziaren eta Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren gaineko araugintzako eskumenak gehitzea; Ikatzaren gaineko Zerga berria; Hidrokarbuoren gaineko Zergaren ordainketako itzulketak kasu batzuk.

Ilido beretik, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunen arteko lankidetzaren printzipioa indartu da, eta ezarri da elkarriz informazioa emateko prozedurak abiaraziko direla adminis-trazioen arteko lankidetzari eta elkarrekiko laguntzari buruzko nazio-arteko itunak eta hitzarmenak, eta batez ere Europar Batasunaren arlo honetako arautegia, behar bezala bete ahal izateko.

Beste alde batetik, seigarren xedapen iragankorren ezarri da Ituna bost urtean behin eguneratu behar dela, eta hori betetzeko 7 milioi eurotan ezarri da Sozietateen gaineko Zergaren, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra duten zergadunak) inguruko eskumene banaketarako eragiketa bolumena.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, Batzar Nagusiek berretsi egin behar dituzte Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30eko bilkuran Ekonomia Itunaren aldaketaz hartutako erabakiaren inguruan Aldundiak egiten dituen jarduketak.

Artikulu bakarra.- Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30eko bilkuran Ekonomia Itunaren aldaketaz hartutako bigarren erabakia berretsi da. Eranskinean erabakiaren testu osoa jaso da.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 12a.- Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Eranskina

BIGARREN ERABAKIA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIKO EKONOMIA ITUNA ALDATZEA

“4. artikulua. Lankidetzaren printzipioa.

Bat. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuko Administrazioari jakinaraziko dizkiote zergen arloko arauak egiteko proiektuak, arauok indarrean jarri baino nahikoa denbora lehenago.

Estatuko Administrazioak jakinarazpen berbera egin behar die lurralde historikoetako erakundeoi.

Bi. Nazioarteko akordioek ekonomia itun hau betetzeko orduan inolako eraginik baldin badute, akordio horietan Euskadiko erakundeek lankidetzaren ahalbidetzeko behar diren baliabideak jarriko ditu Estatuak.

Hiru. Estatuak eta lurralde historikoek, zergak kudeatu, ikuskatu eta biltze aldera eskumenez dagozkien zereginak betetzen dituzten bitartean, zerga horiek hobeto ordainarazteko beharrezkoak zaizkien datu eta aurrekari guztiak emango dizkiote elkarri, behar diren garaian eta eran.

Hain justu, administrazio batak eta besteak:

a) Beharrezkoa duten informazio guztia emango diote elkarri, datuak prozesatzeko zentroen bitartez. Horretarako, behar den komunikazio teknikoak abiaraziko dute.

Urtero, zerga mailako informatika plan koordinatua egingo dute elkarrekin.

b) Ikuskaritza zerbitzuek hainbat plan egingo dute, helburu, arlo eta hautaketa jardunbide koordinatu jakin batzuk batera ikuskatzeko. Gauza bera egingo dute, gainera, egoitza aldatu duten zergadunekin, zerga gardentasunaren araubidepeko erakundeekin eta Sozietateen gaineko Zergaren eragiketen guztizkoaren proportzioan zergak ordaindu behar dituzten sozietateekin.

Lau. Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek elkarri informazioa emateko prozedurak abiaraziko dituzte adminis-trazioen arteko lankidetzari eta elkarrekiko laguntzari buruzko nazio-

La mayor parte de dichas modificaciones traen causa en nuevas concertaciones, destacando fundamentalmente las relativas a la introducción del régimen del grupo de entidades en la normativa reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido, al incremento de las competencias normativas en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y en el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, al nuevo Impuesto sobre el Carbón y a ciertos supuestos de devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos.

Asimismo, se refuerza el principio de colaboración entre las instituciones competentes del Estado y del País Vasco estableciendo la previsión de puesta en funcionamiento de los procedimientos de intercambio de información para el adecuado cumplimiento de los Tratados y Convenios Internacionales, y en especial de la normativa procedente de la Unión Europea en materia de cooperación administrativa y asistencia mutua.

Por otra parte, y en cumplimiento de la previsión de actualización cada cinco años contenida en Disposición Adicional Sexta del Concierto, se eleva a 7 millones de euros la cifra del volumen de operaciones para la distribución competencial en el Impuesto sobre Sociedades, en el Impuesto sobre el Valor Añadido y en Impuesto sobre la Renta de No Residentes con establecimiento permanente.

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 52/92, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, procede que las Juntas Generales ratifiquen las actuaciones de la Diputación en relación con el Acuerdo adoptado por la Comisión Mixta del Concierto Económico en sesión celebrada el 30 de julio de 2007, sobre modificación del Concierto Económico.

Artículo Único.- Se ratifica el Acuerdo Segundo adoptado por la Comisión Mixta del Concierto en sesión de 30 de julio de 2007, sobre modificación del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo texto íntegro se incorpora como Anexo.

Vitoria-Gasteiz, 12 de noviembre de 2007.- El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Anexo

ACUERDO SEGUNDO “MODIFICACIÓN DEL CONCIERTO ECONÓMICO CON LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO”

“Artículo 4. Principio de colaboración.

Uno. Las instituciones competentes de los Territorios Históricos comunicarán a la Administración del Estado, con la debida antelación a su entrada en vigor, los proyectos de disposiciones normativas en materia tributaria.

De igual modo, la Administración del Estado practicará idéntica comunicación a dichas instituciones.

Dos. El Estado arbitrará los mecanismos que permitan la colaboración de las Instituciones del País Vasco en los Acuerdos internacionales que incidan en la aplicación del presente Concierto Económico.

Tres. El Estado y los Territorios Históricos, en el ejercicio de las funciones que les competen en orden a la gestión, inspección y recaudación de sus tributos, se facilitarán mutuamente, en tiempo y forma adecuados, cuantos datos y antecedentes estimen precisos para su mejor exacción.

En particular, ambas Administraciones:

a) Se facilitarán, a través de sus centros de proceso de datos, toda la información que precisen. A tal efecto, se establecerá la intercomunicación técnica necesaria.

Anualmente se elaborará un plan conjunto y coordinado de informática fiscal.

b) Los servicios de inspección prepararán planes conjuntos de inspección sobre objetivos, sectores y procedimientos selectivos coordinados, así como sobre contribuyentes que hayan cambiado de domicilio, entidades en régimen de transparencia fiscal y sociedades sujetas a tributación en proporción al volumen de operaciones en el Impuesto sobre Sociedades.

Cuatro. El Estado y las Instituciones del País Vasco arbitrarán los procedimientos de intercambio de información que garanticen el adecuado cumplimiento de los Tratados y Convenios internacionales

arteko itunak eta hitzarmenak, eta batez ere Europar Batasunaren arlo honetako arautegia, behar bezala bete ahal izateko.

14. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.

Bat. Sozietateen gaineko Zerga itundutako zerga da, eta araudi autonomoaren pean egongo da zerga egoitza Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan.

Hala ere, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan eta ekitaldi horretako eragiketa guztien 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dituzten subjektu pasiboek lurralde erkideko arauak bete beharko dituzte.

Zerga egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboei ere arautegi autonomia aplikatuko zaie baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztiak Euskadin egin badituzte.

Bi. Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun emateak eta zerbitzuak direla-eta, ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekarua kenduta, halakorik badago.

Ondasun emate eta zerbitzutzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.

Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, goiko Bat idatz zatian aipatu den eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, urte osoari dagokiona kalkulatu da ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta.

Hiru. Atal honetan ezarritakoaren ondoretarako, subjektu pasiboak lurralde jakin batean diharduela uste izango da lurralde horretan ondasun emateak eta zerbitzuak egiten dituenean, 16. artikuluan adierazitako irizpideen arabera.

Lau. Jarduera hasi berria denean, lehenengo ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoari begiratuko zaio, eta lehenengo ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, urte osoari dagokiona kalkulatu da dena ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta. Harik eta ekitaldi horretako eragiketak zenbat izan diren eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondore guztietarako, subjektu pasiboak aurrez kalkulatu dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

15. artikulua. Zerga ordainaraztea.

Bat. Foru aldundiei soil-soilik dagokie zerga egoitza Euskadin duten subjektu pasiboei Sozietateen gaineko Zerga ordainaraztea, baldin eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen zenbatekoa gehienez 7 milioi euro bada.

Bi. Aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi euro baino handiagoa denean, subjektu pasiboek, zerga egoitza edonon dutela ere, foru aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko diete zerga, ekitaldian horietariko bakoitzaren lurraldean egindako eragiketen zenbatekoaren heinean.

Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko hurrengo artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekoetan emango da, bi hamartarrekin birliduta.

19. artikulua. Zergaren ikuskapena.

Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu zerga egoitza, lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du Zergaren ikuskapena.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa bada eta eragiketa guztien %75 edo gehiago lurralde erkidean egin bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, zerga egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztiak euskal lurraldean eginak badira.

Bi. Ikuskapenak egiteko lanetan, eskumena duen administrazioari arauak bete beharko dira, aurreko idatz zatian ezarritakoaren arabera.

del Estado y, en particular, de la normativa procedente de la Unión Europea en materia de cooperación administrativa y asistencia mutua.

Artículo 14. Normativa aplicable.

Uno. El Impuesto sobre Sociedades es un tributo concertado de normativa autónoma para los sujetos pasivos que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco.

No obstante, los sujetos pasivos cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 7 millones de euros, y en dicho ejercicio hubieran realizado en territorio común el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones, quedarán sometidos a la normativa de dicho territorio.

Asimismo, será de aplicación la normativa autónoma a los sujetos pasivos cuyo domicilio fiscal radique en territorio común, su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 7 millones de euros y hubieran realizado la totalidad de sus operaciones en el País Vasco.

Dos. Se entenderá por volumen de operaciones el importe total de las contraprestaciones, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido y el recargo de equivalencia, en su caso, obtenido en un ejercicio por el sujeto pasivo en las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas en su actividad.

Tendrán la consideración de entregas de bienes y prestaciones de servicios las operaciones definidas como tales en la legislación reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Si el ejercicio anterior fuese inferior a un año, el volumen de operaciones a que se refiere al apartado Uno anterior será el resultado de elevar al año las operaciones realizadas durante el ejercicio.

Tres. A los efectos de lo previsto en esta Sección, se entenderá que un sujeto pasivo opera en uno u otro territorio cuando, de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 16, realice en ellos entregas de bienes o prestaciones de servicios.

Cuatro. En el supuesto de inicio de la actividad se atenderá al volumen de las operaciones realizadas en el primer ejercicio, y si éste fuese inferior a un año, el volumen de operaciones será el resultado de elevar al año las operaciones realizadas durante el ejercicio. Hasta que se conozcan el volumen y el lugar de realización de las operaciones en este ejercicio, se tomarán como tales, a todos los efectos, los que el sujeto pasivo estime en función de las operaciones que prevea realizar durante el ejercicio de inicio de la actividad.

Artículo 15. Exacción del Impuesto.

Uno. Corresponderá de forma exclusiva a las Diputaciones Forales la exacción del Impuesto sobre Sociedades de los sujetos pasivos que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen de operaciones en el ejercicio anterior no hubiere excedido de 7 millones de euros.

Dos. Los sujetos pasivos cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiere excedido de 7 millones de euros tributarán, cualquiera que sea el lugar en que tengan su domicilio fiscal, a las Diputaciones Forales, a la Administración del Estado o a ambas Administraciones en proporción al volumen de operaciones realizado en cada territorio durante el ejercicio.

La proporción del volumen de operaciones realizada en cada territorio durante el ejercicio se determinará por aplicación de las reglas que se establecen en el artículo siguiente y se expresará en porcentaje redondeado con dos decimales.

Artículo 19. Inspección del Impuesto.

Uno. La inspección del Impuesto se realizará por la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el sujeto pasivo tenga su domicilio fiscal en el País Vasco.

No obstante, la inspección de los sujetos pasivos cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 7 millones de euros y en dicho ejercicio hubieran realizado en territorio común el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones corresponderá a la Administración del Estado.

Asimismo, la inspección de los sujetos pasivos cuyo domicilio fiscal radique en territorio común, su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 7 millones de euros y hubieran realizado la totalidad de sus operaciones en territorio vasco, se realizará por la Diputación Foral competente por razón del territorio.

Dos. Las actuaciones inspectoras se ajustarán a la normativa de la Administración competente, de acuerdo con lo previsto en el

Gainerako administrazioek lagundu egin diezaiokete eskumena daukan administrazioari.

Ikuskapen lan horien ondorioz zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo itzuliko du. Dagozkion konpentsazioak gero emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada. Eskumena daukan administrazioeko organo ikuskatzaileek euren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Hiru. Aurreko idatz zatian xedatutakoak ezin ditu foru aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak murriztu. Baina foru aldundien jarduera horiek ez dute, administrazio organo eskudunen jardueren ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla eta, inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan.

Lau. Administrazio eskudunak egiaztapenetan zehaztutako proportzioak kitatutako betebeharreri dagokienean ere bete beharko ditu subjektu pasiboak. Horrek ez du esan nahi bi administrazioen artean behin betiko onartzen direnak bete behar ez direnik.

27. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

Lehenengoa. Euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga guztiak dagokien foru aldundian ordaindu behar dituzte; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituzte.

Bigarrena. Lurralde erkidean eta euskal lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zergak bi administrazioetan ordaindu behar dituzte, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan. Proportzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jasotako lotura puntuak erabili beharko dira.

Hirugarrena. Aurreko urtean 7 milioi euro baino eragiketa kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga egoitza lurralde erkidean baldin badaukate; eta zerga egoitza Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru aldundian.

Bi. Eragiketen zenbateko osoa haxe izango da: ondasunak ematerakoan eta zerbitzuak egiterakoan subjektu pasiboak lortu dituen kontraprestazioen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekaragua alde batera utzita, halakorik badago.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 7 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan.

Jardueran emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketarik abiatuko da urte osoa kalkulatzeko.

Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela esan daiteke, 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan ondasunak eman edo zerbitzuak egiten baditu.

Lau. Ondasunen elkarte barruko trafikoarekin zerikusia duten eragiketen ziozko Zerga, artikulua honetako hurrengo idatz zatietan aipatuko diren kasuetan izan ezik, aurreko Bat idatz zatian azaldutako eran ordainaraziko da.

Bost. Garraibide berrien elkarte barruko erosketen ziozko Zerga, baldin eta erosketak egiten dituzten pertsona edo erakundeen eragiketarik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharretik erabat salbuetsita badaude edo zerga horren pean ez badaude, garraio-bideak behin betiko matrikulatzen diren lurralde erkideko edo euskal lurraldeko Administrazioak ordainaraziko du.

Sei. Jarraian azalduko diren eragiketarik egiten direnean Estatuko Administrazioak edo lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du Zerga, subjektu pasiboaren egoitza non dagoen, lurralde erkidean edo foru lurraldean:

a) Ondasunen elkarte barruko eskuraketak, baldin eta eskuraketak zergapean badaude halaxe aukeratu delako edo Zergari buruzko arauetan ezarritako muga kuantitatiboa gainditu delako, eta

apartado anterior, sin perjuicio de la colaboración del resto de las Administraciones.

Si como consecuencia de las actuaciones inspectoras resultase una deuda a ingresar o una cantidad a devolver que corresponda a ambas Administraciones, el cobro o el pago correspondiente será efectuado por la Administración actuante, sin perjuicio de las compensaciones que entre aquéllas procedan. Los órganos de la inspección competente comunicarán los resultados de sus actuaciones al resto de las Administraciones afectadas.

Tres. Lo establecido en el apartado anterior se entenderá sin perjuicio de las facultades que corresponden en su territorio a las Diputaciones Forales en materia de comprobación e investigación, sin que sus actuaciones puedan tener efectos económicos frente a los contribuyentes en relación con las liquidaciones definitivas practicadas como consecuencia de actuaciones de los órganos de las Administraciones competentes.

Cuatro. Las proporciones fijadas en las comprobaciones por la Administración competente surtirán efectos frente al sujeto pasivo en relación con las obligaciones liquidadas, sin perjuicio de las que, con posterioridad a dichas comprobaciones, se acuerden con carácter definitivo entre ambas Administraciones.

Artículo 27. Exacción del Impuesto.

Uno. La exacción del Impuesto sobre el Valor Añadido se ajustará a las siguientes normas:

Primera. Los sujetos pasivos que operen exclusivamente en territorio vasco tributarán íntegramente a las correspondientes Diputaciones Forales y los que operen exclusivamente en territorio común lo harán a la Administración del Estado.

Segunda. Cuando un sujeto pasivo opere en territorio común y vasco tributará a ambas Administraciones en proporción al volumen de operaciones efectuado en cada territorio, determinado de acuerdo con los puntos de conexión que se establecen en el artículo siguiente.

Tercera. Los sujetos pasivos cuyo volumen total de operaciones en el año anterior no hubiera excedido de 7 millones de euros tributarán en todo caso, y cualquiera que sea el lugar donde efectúen sus operaciones, a la Administración del Estado, cuando su domicilio fiscal esté situado en territorio común y a la Diputación Foral correspondiente cuando su domicilio fiscal esté situado en el País Vasco.

Dos. Se entenderá como volumen total de operaciones el importe de las contraprestaciones, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido y el recargo de equivalencia, en su caso, obtenido por el sujeto pasivo en las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas en su actividad.

En el supuesto de inicio de la actividad, para el cómputo de la cifra de 7 millones de euros, se atenderá al volumen de operaciones realizado en el primer año natural.

Si el primer año de actividad no coincidiera con el año natural, para el cómputo de la cifra anterior, las operaciones realizadas desde el inicio de las actividades se elevarán al año.

Tres. A los efectos de lo previsto en esta Sección, se entenderá que un sujeto pasivo opera en uno u otro territorio cuando, de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 28, realice en ellos entregas de bienes o prestaciones de servicios.

Cuatro. La exacción del Impuesto correspondiente a las operaciones relacionadas con el tráfico intracomunitario de bienes se realizará, salvo los supuestos especificados en los apartados siguientes de este artículo, en los términos especificados en el apartado Uno anterior.

Cinco. La exacción del Impuesto por las adquisiciones intracomunitarias de medios de transporte nuevos efectuadas por particulares o por personas o entidades cuyas operaciones estén totalmente exentas o no sujetas al Impuesto sobre el Valor Añadido, corresponderá a la Administración del territorio común o vasco en el que dichos medios de transporte se matriculen definitivamente.

Seis. La exacción del Impuesto se exigirá por la Administración del Estado o por la Diputación Foral competente por razón del territorio, según que el sujeto pasivo esté domiciliado en territorio común o foral, en los siguientes supuestos:

a) Las adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas al Impuesto por opción o por haberse superado el límite cuantitativo establecido en la normativa reguladora del Impuesto, efectuadas por

horiek egiten dituztenak Zergari kenketa osoa edo partziala egiteko eskubiderik ez dakarten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak badira, edo enpresari nahiz profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoak badira.

b) Ondasunen elkarte barruko eskuraketak, baldin eta araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun errekaruaren araubidean egiten badira.

29. artikulua. Zergaren kudeaketa eta ikuskapena.

Bat. Zerga likidazioen emaitza dagokien administrazioei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita. Kontraprestazio horiek, hain zuzen ere, egindako ondasun emate eta zerbitzuei dagozkie, batzuetan zergapetu eta beste batzuetan salbuetsei egingo direnak eta, salbuesitako kasuan, kenketa eskubidea dakartenak.

Bi. Egutegiko urte bakoitzean behin-behineko aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira. Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio aldietan behin-behinean aplikatu behar den proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatu du, beraren ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta, hala ere azkenean erregularizazioa egingo da.

Aurreko lerroaldean jartzen duena bete egin behar bada ere, honako kasu hauetan beste proportzio bat aplikatu daiteke behin-behineko, beti ere, ekonomia itun honetako III. kapituluko II. atalean aipatutako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinarazi ondoren:

a) Aktiboak bategitea, bereiztea eta ekartzea.

b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jardueraren bat hasi, amaitu, zabaldu edo murrizten denean, baldin eta idatz zati honetako lehen lerroaldean zehaztutako irizpidearen arabera kalkulaturako proportzioa nabarmen aldarazten bada.

Beti ere, aldakuntza nabarmena dela uste izango da lurraldeetako edozeini aplikatu beharreko proportzioak ehuneko 15 gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

Hiru. Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzean Zergaren gainean egindako azken aitorten likidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatu ditu —garai horretan egindako eragiketen arabera—, eta aurreko likidazio aldietan administrazio bakoitzarekin egindako deklarazioak erregularizatu egingo ditu, dagokion moduan.

Lau. Subjektu pasiboek Zergaren aitorten likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Aitorten likidazio horietan, beti ere, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazio batari edo besteari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti.

Bost. Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

a) Zergak foru aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko zerga ikuskaritzen lana izango da.

b) Zergak lurralde erkidean edo euskal lurraldean egindako eragiketa kopuruaren proportzioan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

